



Arartekoaren ebazpena, 2012ko otsailaren 23koa. Horren bidez Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio gizarte laguntzen sortzapena berriro has dezan hilabeteko etenaldiaren ondoren.

Aurrekariak

1. (...), erreklamatzailak diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta guraso bakarreko familientzako subsidio ekonomikoak jasotzen ditu. Prestazioak 2011ko urtarrilaren 28ko ebazpen bidez eten zitzaizkion prestazioak aldatu, etetea edo iraungi zitzaketen gertakariak helarazi ez izanagatik (Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen 19.1.f artikulua).
2. Etetea, zehazki, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona kopuruan egondako aldaketak ez helarazteagatik gertatu zen. Erreklamatzailak adierazitakoaren arabera, 2010eko irailaren 30ean bere etxebizitzan logela bat alokatzeko asmoa zuen pertsona bati erroldatzeko baimena eman zion. Gertakari hori 2010eko azaroaren 4an jakin izan zuen gizarte langileak. Pertsona hori, berriz, ez zen pisuan aurkeztu, eta harekiko harreman guztia galdu zuen, beraz, 2010eko abenduaren 3an erreklamatzailak erroldan baja ematea eskatu zuen.
3. 2011ko urtarrilaren 28ko ebazpenaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailak prestazioak eten zituen goian aipatutako arrazoia zela-eta. Hori zela-eta, hilabete eta erdi ordaindu gabe egon ondoren, 2011ko ekainaren 29ko epaiaren bidez erreklamatzaila une horretara arte haren etxebizitza zen alokairuko pisutik bota zuten 3 urteko semearekin batera. Gertakari horiek direla-eta, Arartekoaren aurrean kexa bat egin zuen.
4. Abuztuaren 12an informazio eskaera bat bidali genion foru erakundeari etetea bideratzeko jarraitutako izapideen berri izateko asmoz. Irailaren 21eko erantzun partzialaren aurrean, bigarren informazio eskaera bat bidaltzen da, azaroaren 4koa. Horren bidez, oraindik ere etetea mantentzeko arrazoiaren inguruko datuak eskatzen dira eta erantzuna abenduaren 20an jasotzen da.





Gogoetak

1. 18/2008 Legearen 19.1.f artikulua, besteak beste, zera ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen betebeharrak gisa: *"Lege honetan ezarritakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen gertaerak jakinaraztea, erregelamendu bidez ezarriko den epean"*. Agindu hori diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 43.2.a artikulua osatzen du, izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentarako (eta, horren osagarri izanik, baita etxebizitzarako prestazio osagarria eta guraso bakarreko familientzako subsidio ekonomikoa ere) eskubidea eteteko arrazoi gisaz era ezartzen baitu: *"Bizikidetzaren unitatearen osaeran edo baliabideen mailan izandako aldaketan berri ez ematea ezarritako dagoen epearen barruan."* Ezarritako epe hori 147/2010 Dekretuaren 12.1.f1. artikulua aipatutakoa da, hamabost egun naturaleko epea eskaintzen duena jakinarazteko *"Bizikidetzaren unitatearen osaeran eragina duten gertakariak"*.
2. Zentzu horretan, badirudi erreklamatzailak ez zuela betebeharrak hori bete, erroldan egindako aldaketa irailaren 30ean burutu baitzen eta gertakari hori azaroaren 4an jakinarazi zitzaion gizarte langileari. Zentzu horretan, prestazioen etetea egokia dela pentsa dezakegu, etxebizitzan pertsona bat gaineratzea bizikidetzaren unitateko aldaketa gisa har bailiteke. Irailaren 21eko bere lehen erantzunean, Arabako Foru Aldundiak zera adierazi zuen: *"con fecha 04/11/2010 Dña. . (...) comparece en su Servicio Social de Base para notificar que ha subarrendado una habitación a un inquilino, consta empadronado en la vivienda desde el (XX/XX/XXX). Desde el Servicio Social de Base se le deriva a la oficina centralizadora de prestaciones sita en San Antonio 10, para que aporte documentación relativa a dicha situación (contrato de subarrendamiento de habitación y certificado de padrón colectivo), que Dña. . (...) no presenta, ni acude a comunicar ningún cambio relativo a la vivienda. El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, institución competente para el seguimiento continuado y control de las personas titulares y beneficiarias de las prestaciones económicas previstas en la ley 18/2008, de 23 de Diciembre, con fecha 17/12/2010 ante la no presentación de documentación alguna relativa a cambios en la vivienda de Dña. (...), remite tramite de audiencia, para que Dña. . (...) aporte documentación relativa al cambio en el padrón de la vivienda donde reside y que no ha comunicado en plazo y formas legales"*. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da eteteko ebazpenean adierazitako arazoia ez dela agerpen falta baizik eta 18/2008 Legearen 19.1.f. artikulua garatzen duen 147/2010 Dekretuaren 12.1.f1. artikulua betebeharraren urratzea.
3. Etetea bideratzeko arazoak egon litezkeen arren, etete horrek araudiak zehaztutako iraupena izango luke. Arrazoi horren ondoriozko etetea legegilearen berariazko xedapen baten helburu da, 147/2010 Dekretuaren 45.2. artikuluan zera azaltzen duena: *"43. artikulua 2. paragrafoa a), d) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, etendura hilabetekoa izango"*





da lehen aldiz gertatzen denean eta 3 hilabetekoa ondoren berriro gertatzen bada, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen.

Ebazpenaren testuaren arabera, etetearen arrazoi gisa 18/2008 Legearen 19.1.f artikulua edukia urratzea ezartzen duena, erakunde honek uste du espezialitatearen printzipioa kontuan hartuta etetearen iraupena hilabetera mugatu behar izango litzatekeela, aipatutako 147/2010 Dekretuko 45.2. artikulua ezartzen duen moduan. Zentzu horretan, gure bigarren informazio eskaerari erantzunez, foru erakundetik zera adierazten digute: *"Como continuación a nuestro escrito de 20 del pasado mes de septiembre, relativo al expediente de queja nº 1.343/2011/43, promovido por Dña. (...) (numero N.I.E: X-{xxxxxxx}) relativo a la reanudación de la prestación "ope legis" a partir del 01/02/2011, es decir un mes después de que la suspensión se hubiera hecho efectiva, tengo a bien comunicarle lo siguiente: Dado que el Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de ingresos, en su artículo 46 y el Decreto 2/2010, de 12 de enero, de la Prestación Complementaria de Vivienda, en su artículo 27, establecen que "decaídas las causas que motivaron la suspensión del derecho de las citadas prestaciones, la Diputación Foral, de oficio o a instancia de parte, procederá a comprobar si en ese momento concurren los requisitos para el devengo de la prestación ..." por lo que ésta institución en los casos de suspensión por no comunicar cambios, procede a instancia de parte para comprobar el cumplimiento de los requisitos en el momento de la solicitud de reanudación".*

Izan ere, hori da 147/2010 Dekretuaren 46. artikulua xedapena (baita 2/2010 Dekretuko 27.arena ere, kasu honetan aplikagarria ez dela ulertzen dugun arren, izan ere, etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea 2/2010 Dekretuaren 41.1. artikulua babesean gertatzen da, prestazio hori lehenengoaren osagarri baita); kontua da, gure ustez, espezialitate printzipio hori aplikatuz, eskubidearen etetearen iraupenari berriaz zuzenduriko agindua egonik etete hori 147/2010 Dekretuaren 43.2.a. artikulua dela-eta gertatzen denean, etetearen iraupenaren zehaztapena 45.2. artikulua xedatzen du, beraz, 46. artikulua aplikagarria izango da ofiziozko prestazioaren sortzapena berriro asteko aukerari dagokionez bakarrik. Kasu horietan etetearen iraupena araudiak berak zehazten duenez, gure ustez, neurri hori jasotzen duten pertsonen ezin zaie eskatu berrastea eskatzea, izan ere, 45.2. artikulua arabera, *ope legis* gertatzen da hori neurria eraginkor egin zenetik hilabete igaro ondoren (araudiaren idazketaren hutsei dagokienez, gure 9/2011 Gomendio Orokorra bidaltzen ditugu).





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

29/2012 GOMENDIOA, otsailaren 23koa, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari egina:

Etetearen ondorioetarako data 2011ko urtarrilaren 1a izanik, prestazioaren sortzapena 2011ko otsailaren 1etik aurrera has dadila, 147/2010 Dekretuaren 45.2. artikulua babesean.

